



■ PENTSIODUNAK

«Bizitza lanean, orain miserian», pentsiodunak

Elkarretaratzea eta manifestazioa egin zuten atzo, berriro ere, Hernaniko pentsiodunek, eta dei egin zuten larunbatean Donostian egingo den manifestazioan parte hartzeko. Mozioa ere prestatu dute.

INDARRAK biltzen segitzen dute pentsionistek, murrizketen kontra protesta egin eta «gutxieneko 1.080 euroko pensio duinak» eskatzeko.

Atzo ere elkarretaratzea egin zuten Hernaniko Plazan, eta manifestazioa gero, Kaxkoan barrena. Datozen deialdien berri ere eman zuten.

Larunbatean, Donostiara

Mobilizazioei dagokienez, larunbatean hiriburuetan egingo diren manifestazioekin bat egiteko dei egin zuten; kasu hone-tan, Donostikoarekin. Alderdi Ederretik 18:00etan aterako dira. Jubilatuz gain, gazteei eta gizarte osoari joateko eskatu zuten.

Sinadurak biltzen, mozioaren alde

Bestalde, Udaleko datorren Plenoan mozioa aurkeztuko dutela jakinarazi zuten atzo, eta sinadurak bilduko dituztela, mozioaren alde. ■



Manifestazio jendetsua egin zuten pentsionistek, atzo ere.

■ MARTXOAK 8 ZINEGOAK

Sei film labor gaur, gaylesbitrans gaia lantzeko

Martxoak 8ko egitaraua zabaldu eta bi ekitaldi gehiago izango dira. Gaur, 19:00etan Biterin sei film labor jarriko dira. Bestalde, bihar, 18:00etan, Dacouga Minkette aktibistak hitzaldia emango du.

BILBOKO Gaylesbitrans 15. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen jaialdian aurkeztutako sei film labor ikusteko aukera izango da gaur Biterin, 19:00etan hasita, Martxoak 8aren inguruan antolatutako ekitaldiei segida emanez.

Bihar, berriz, Jeanne Rolan-de Dacouga Minkette iker-

tzaile eta aktibista feministak hitzaldia emango du, 18:00etan.

Mundu zabaleko 6 film labor
Gaurkoan sei film labor ikusi ahal izango dira.

Homoamak film euskaldun-ean, Xabik emakume batekin maitemindu dela aitortu-ko die bere bi amei. Herbehe-

retako *Sirene*, nahasmena, la-guntasuna eta norbera izateari buruzkoa da. *Happy* australiar-rik ez eta hitzorduetarako app bat deskargatzen duen gaztea du protagonista. Kanadatik datorren *Marguerite* filmak, emakume nagusi bat erizai-narekin lotzen duen adiskide-

tasuna dauka oinarri. *Ornitorrinco* film espainiarrean, bien arteko harremana eten arren, familia bazkarian itxurak egingo dituzten bi emakume ageri dira. Azkenik, *Szèp Alak (Itxura Ederra)* hungaria-rra, garbitzaile eta ikasle baten arteko ezinezko maitasunari buruzkoa da. ■

■ UDALA

Lehiaketan berriz, Zinkoeneako kioskoa

Zinkoeneako kioskoaren kargu egiteko eskaintzarik aurkitu ez zenez, Udalak berriro ireki du epea, eskaerak egiteko. Martxoaren 8ko GAOn argitaratu zen iragarkia, eta biharamunetik hasita, 15 egun naturaleko epea dago kioskoaren kudeaketaz arduratzeko eskaintzak egiteko, kontrarazio sailean. ■

■ HEZKUNTZA

Greba deialdiak, bi egunetan

Hezkuntza komunitatean greba egunak deitu dira biharko eta etzirako. Bihar Gasteizen, Larkua aurrean manifestazioa egingo da, eta bertara joateko autobusak antolatu dira. Etzi, berriz, Donostiako Boulevardean manifestazioa egingo da 12:00etan, eta Hernanitik zutabe bat aterako da 09:30etan, Astigarraga (10:15) eta Martutenen (10:45) barrena. ■

■ TXANTXANGORRI

Azken partidak, mus txapelketan

Gaur finalerdiak jokatuko dituzte Txantxangorriko bakarkako muslariek: Pablo Ruiz-Joxe Etxarri eta Ormazabal-Monroy; ostegunean jokatuko dute finala gaurko irabazleek, eta 3 eta 4garren postuak izango dituzte lehian galtzaileek. Bestalde, ostegunean binakako finala jokatuko dute Joxe eta Mikelek, Mauri eta Txampiren kontra, eta 3 eta 4 postuak izango dituzte lehian, Ormazabal-Rekaldek eta Javier-Pellok. ■

■ LITERATURA

Solasaldi bana, gaur eta bihar

Miren Gorrotxategiren 33 *ezkil* liburuari buruzko solasaldia egingo da gaur liburutegian, 19:30etan, Ane Mayozen gidatuta, eta bihar, ordu eta leku berean, Marian Enriquezen *Las cosas que perdimos en el fuego* izango da aztergai, Amaia Garciak gidatuta. ■

Fisioterapeutak:

Roberto Dos Santos
Jon Aramendi
Miren Eceiza
Ane Barrante
Asier Piera
Jone Agirre
Goar Lopetegi
Usua Urquiola

KIMERA
Fisioterapia - Osteopatia

www.kimerafisioterapia.com

Hitzordua hartzeko
orain ere whatsapp zerbitzua

9:15 - 18:00



638421060

Administraria: Yesica

☎ TAXIAK: 943 550093 | UDALTZAINGOA: 943 248900 | DYA: 943 464622 | AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 | JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103 ☎ / Egunez: Castilla Urbietan, 7 (Hernani) 943 552941 / Gauez: Castilla Urbietan, 7 (Hernani) 943 552941

EGURALDIA **GAUR** Hego-haizea ibiliko da, baina ez orain arte bezain zakar. Hala ere, tenperaturak gora egingo du horri esker. Goizean zerua lainotuago egongo da, eta euri pikka bat egin dezake. **Min.7° / Max.17°**

BIHAR Hego-haizeak bolada oso gogorrek joko du. Goizean lainoak pilatu egingo dira, eta arratsalderako, haizea ipar-mendebaldera aldatu eta zaparadak botako ditu. **Min.9° / Max.18°**

EH BILDU PRENTSA OHARRA

Merkataritzagune haundien inguruko proiektuekin, «kezkatuta»

Hala azaldu ziren Donostialdeako EH Bilduko hautetsiak prentsaurrekoan. Bestalde, Hernaniko EH Bilduk herri batzarra deitu du ostegunerako.

EUSKO Jaurilaritza Lurralde Arloko Plan berria egiten ari da, eta EH Bilduren ustez, «merkataritzaren inguruko oreka erabat hautsi daiteke».

Prentsaurrekoa eman zuten ostiralean Hernani, Astigarraga, Andoain, Usurbil, Lasarte-Oria, Oiartzun, Donostia, Lezo, Pasaia, Errenteria, Hondarribia eta Irungo EH Bilduko hautetsiek. «Kezkatuta» agertu ziren, «mahai gainean dauden proiektu

guztiak gauzatzen badira, beste 200.000 bat metro koadro izango ditugulako». Horrekin, «merkataritzagune haundien azalera ia bikoiztu egingo da Bidasoaldean, Oarsoaldean, Donostialdean eta Buruntzaldean».

Horren aurka egin eta «merkataritza, kontsumo eta bizi ohiturak zaintzea, eta gure herrietako izaera, erro sakonak dituen, babestea» helburu, PNV eta PSEri eskatu die planari

moratoria aplikatzea, «indar politiko nagusien artean egoeraren diagnostikoa egin eta erabaki okerrak hartu baino lehen, ahalik eta akordio politikorik zabalena» lortzeko.

Hernanin batzarra, etxi Bestalde, Hernaniko EH Bilduk herri batzarra deitu du osteguneari, 19:15etan Biterin, txotx prozesuaren balorazioa egin eta 2018-19ko erronkak zehazteko. ||

HERNANI'N MUSIK

Hots-larretan, hiru hernaniarrek

Juan Mari Beltran, Ixiar Jauregi eta Errege Beldak kontzertua emango dute osteguneari, 20:00etan Biterin, eta sarrerak salgai daude 7,5 euroan.

NATURAN artzainek topatu eta imitatu dituzten soinuak musikatu ditu Juan Mari Beltran, herri musikan adituak, *Hots-larretan* ikuskizunean, eta Biterin emango du osteguneari, Errege Belda soinu-jole eta Ixiar Jauregi txalapartari hernaniarrek.

Emanaldia 20:00etan hasi-ko da, Biterin, eta sarrerak salgai daude, 7,5 euroan.

Olerkia, musika eta erritmoa Hainbat soinu-tresna erabiliko dituzte emanaldian: akordeoia, txirula, ttuntuna eta txala-

parta, alboka, txanbela, txistua, klarineta, dultzaina...

Horri guztiari, Andoni Salmeroren olerkiak gehituko dizkiote, eta horrela osatuko dute sinfonia, aretora ekartzeko Isturitzeko leize-zuloko hotsak, adarrenak edo txorien kantuek. ||

JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefona. ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

Hernaniko Kaxkokoan bizi den egoerari buruz, beste behin ere (eta II)

Ez da ulertzen xamurra Kaxkoko bizilagunen bizi kalitatearen hondatzea dela medio, haien exodoarekiko udalaren isiltasun ozena. Nonbait isilak isila erakartzen, ez da arinagoa Kaxkoko etxebizitzek urteetan ezagutzen duten baliogutzitzearen aurrean gure gobernatzaleek mantentzen dutena.

Ia hiru legealdi, 11 urte jarraian, hamaika urte Udal gobernuaren zuzendaritzan ez ote da epe nahikoa indar politiko batek esku artean darabilkigun gaiari buruz hasieratik jorratu dituen ideia nagusiak baliagarriak diren ondorioztatuzko? Nabardurertan sartu Gabe, Udal gobernuaren ustez urte bolada horretan gure gaiari dagokion politika municipalaren bizkar hezurak honakoa du gako nagusia: uztartu behar dira 'bisitarien dibertsioa' eta 'bizilagunen deskantsua'. Baina, bi baldintza

horiek betetzen dituzten formula magikoak gobernatzaleen fantasian ezin dira errealtate egozkorrean txertatu. Lotsa ere sentitzen dut gogoratzen ditudanean, urtetik urtera, denboraldi hasierako ekitaldietan alkateen ahotsetan entzundako, sormenaz gainezka lelo xelebreak, zein baino zein absurdoagoak. Izan ere, inkognita bi dauzkan ekuazio bakarrak ez baitu soluziorik. Ezin baikorra izan. Errealitateak erabakitzen du, ezinbestez, politika horren erre-alismoa dosia. Giza eskubideen aldeko emaitza aztarnarik gabeko hamaika urte errefusara. Zenbaiterainoko ongizate xahutze tokatuko zaigu Udal gobernuak 'parranda isila' edo 'deskantsu zaratatsua' aurkitzen dituen bitartean!

Edozein hernaniarrek dagoz- kion hiritar betebeharrak betetzen ez dituenean, erabilitako zerbitzuen ordaintetan atzeratzen bada, edo betekizun fiskalak alboratzen baditu, hango

prozedura dela, hemengo kontrola dela, 'zerbait' aktibatzen da haren 'desbideratzea' zuzentzeko. Zer gertatu behar du gobernu municipalak hain barneratua duen immobilismoa utzi eta, 'zera' aktibatuz, gure Kaxkoko biztanleen kronifikatze bidea daraman arazoari trataera erai- kigarri bat emateko? Hiritar aniztasunaren arabera, 'zera' hori izan daiteke: giza eskubideen aldarria...lotsa...agindutakoa betetzea...borondate politikoa...dezentzia...duintasuna...erres- petoa...autokritika...

Bukatzeke, Hernaniko Udale- an erabakitzeke eskubidearen aldeko indar politikoen ordezkari- en gehiengo potoloa kontutan harturik, enkistatzeko zorian da- goen arazo hau bideratzeko ez al litzateke izango aukera demo- kratiko hobeezina, mugimendu hiritar eta sozialekin batera, Kax- kooan auzo galdeketa bat egitea?

Deus ez hiritarrei buruz, hiri- tarrik Gabe.

Luis Gorrotxategi Zigaran

ESKU PELOTA



Ojuel, Aizpirtarte eta Gorrotxategi, Euskal Herriko txapelak.

Txapelak ez, lorpen bakarrak

Euskal Herriko txapelketan hiru txapela lortu dituzte hernaniarrek, eta Gipuzkoan beste bat.

TXAPELAK eta lorpen garrantzi- suak irabazi dituzte pelotari hernaniarrek, asteburuan.

Euskal Herriko txapelketan, seniorretan, Ojuel eta Aizpirtar- tek 22-20 irabazi zioten finala Epleri, eta seniorretako elite mailan, Pagazperen izenean irabazi zuen Gorrotxategi, Santxorekin batean, 22-12, Lap- keren kontra.

Gipuzkoako Trinkete Txapelketan, berriz, Arizmendi jubenilak, Aldunberrik lagun- duta, 40-28 irabazi zuen Tolosaren aurka. Seniorretako bigarren mailan, Pagolak eta Arizmendik 40-24 galdu zuten, Villabonaren aurrean, baina datorren urtean lehenengo mailara igotzeko eskubidea irabazi dute. ||

ZOKKETA

Izena _____

Telefona _____

ERRIGORA

ERRIGORA

Zozketa, irakurle eta bazkideen artean

Errigoraren kanpaina berria martxan dago. Martxoaren 20ra arte eskatu daitezke oliba olio birjina estra eta kontserba-sortak, Lurre- kon eta Karabelekon edo www.errigora.eus webgunean. Baina Kronikak eta Doberak zozketatuko dituzten bi produktu sortetako bat lortzeko aukera ere izango dute, Dobera-Kronikako bazkide direnek, eta bazkide ez izanda ere, hemen agertzen den fitxa bete eta Kroni- kan aurkezten dutenek edo albiste honi Kronikako webgunean iruz- kina egiten diotenen. Ostiralera arte hartu ahal izango da parte. ||

KOMIKIGINTZA

Udakilaren azken bi lanak, kalean

Itsas korapiloak ardatz hartuta, 7 korapilo bilduma argitaratu berri du Jon Mikel Udakiola komikilari hernaniarra, Xabier eta Martin Etxeberria gidolariarekin batera. Autoargitalpenaren bitartez kaleratu dute komikia, Txipibooks zigiluarekin, eta ostiralean Donostiako Komikigunean aurkeztu zutenetik, interneteko Amazon atarian edo Hernaniko Gaueko komiki-dendan eskuratu daiteke. Era berean, umeentzako *Etxe berria* ere argitaratu berri du Udakiolak; Nicolino sagutxo du protagonista. Hau ere bide beretik eskuratu daiteke, eta 7 korapilo bezala, euskeraz eta gaztelaniaz argitaratu da. ||

IRAGARKI MERKEAK

Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)